



EITBren “NEW STYLE”: Arlo Publikoarekin lagunkeria eta prekarietatea batetik, kontrola eta kontrol falta bestetik.

Hauxe da LABek ondorioztatzen duena jaso duen hainbat informazio aztertu ondoren. EITBko zuzendaritzak baliabide publikoak erabiltzen egon daiteke, era alderdikoi eta –alderdi horren izaeraren ildotik- neoliberal batetan.

Hainbat enpresa sortu ditu kapitalaren %50a publikoa dutenak, EITBrentzat lanak egiteko. Horrela hainbat helburu bete ditzake:

- **Ekimen pribatu batzuk diru publikoarekin hornitzea.**
- **Kontrol publikoari ihes** egitea, bai EITBko Administrazio Kontseiluari, Gasteizko Parlamentuko EITBren kontrolerako batzordeari zein Herri Kontuen Euskal Epaitegiari ere.
- Administrazio Kontseiluetan parte hartuz, zuzendari batzuen **soldata publikoetz gaindiko gainsariak** lortzeko, dieten bidez. Jakina, ezin da kuantifikatu, hain zuzen ere aipatu kontrol publikotik salbu daudelako.
- **Komunikazio enpresa horien kontrola bermatzea**, nahiz eta kapitalaren erdia “bakarrik” publikoa bada ere. Administrazio Kontseiluen kontrola mantentzen da, EITBko kideen proportzioagatik edota lehenakariaren kalitatezko bozkaren bitartez, gutxienez.¹
- Enpresa publikoen **langileen betebeharrak eta eskubideak saihesteko.**

“**Auto-azpikontrata**” instrumentalak sortzen dira, izan ere enpresa horiek EITBrentzat lan egiten dute, eta instalazio berdinetan ari dira (VILAU-MBN-M4F) edota arituko dira laster batetan (EXPRESSIVE).

- **VILAU-MBN-M4F haria:**
 - 2003an EITBNET sortu zen, Internet zerbitzuak EITBri zein Eusko Jaurlaritzari eskaintzeko. Ia egiturarik gabe sortu zen, EITBko langile batzuk exzedentzian zeudenak burutzak hartuz. Gainontzeko langile guztiak (50-60) sortu berri zen VILAU enpresakoak izan ziren.
 - “Kasualitatez” VILAU enpresako zuzendaria Javier Calera zen, EITBNETeko zuzendaria ere batera hainbat hilabetez. Parlamentuari emandako erantzun batetan (2006/7/5), bi enpresetako kontratua “lanaldi partzialekoa” zuela onartu zuen EITBk. Zuzendari batentzako oso egoera ARRAROA da – noiz negoziatzen ote du bere buruarekin-, eta are arraroagoa, bere burua azpikontratatzeko baldin badu. Erantzunkizun PENALAK ere egon daitezke.
 - “Kasualitatez” gaia parlamentu batzordean lantzen hasi eta kontrata aldatu egin zen bat-batean. Lehenagotik existitzen zen MBN enpresak hartu zituen VILAUko langile gehienak.
 - Egoera 2008an “egonkortu” ahal izan da, EITBk beste enpresa bat sortu duenean bere burua azpikontratatzeko, M4F. MBNko langile gehienak horra pasatzen dira, ez guztiak ordea.
- **EXPRESSIVE haria:**
 - Publizitatea zuzenean EITB Erakunde Publikoko talde batek kudeatzen zuen, eta burua Itziar Epalza zen.
 - PRISA taldeak kudeatzen zuen GDM (Gerencia De Medios) enpresa madrildarrarekin hitzarmena egin, eta publizitatearen kudeaketa kanporatu egin zen, baina arduradun berdinarekin, exzedentzian egonda.
 - “Kasualitatez” ere, 2008an enpresa berri bat sortzen da, kasualitatez soilik kapitalaren %50a publikoa duena, eta administrazio kontseiluaren kontrola EITBren esku geldituko zena: EXPRESSIVE MEDIA.

¹ *Administrazio Kontseiluen osaketak kopuru bakoitikoak izaten dira, berdinketak saihesteko. Kasu hauetan kontseiluko presidentearen kalitatezko bozkak hausten du berdinketa.*

LANGILEEN EGOERA

Nahasketa honek ez ditu soilik zuzendariei eragiten. Langileak ere oso “zikinduta” daude operazio honen guztiarekin. Baina hau da benetako zikinkerri beltza, pairatu beharreko egoera zikin baten ondorioa. Aipatzekoa EITBNET, enpresa berria izanda –EITBren estilo berrikoa ere-, ia egiturarik ez duela (20 bat langile), langile batzorderik ez, lan hitzarmenik ez, eta langile gehienak (%80a edo) kontratatukoak. Kontrata horietan ematen den langileen prekarietatea eta kontrolaren zantzu batzuk dira hauek:

- Egoerarik onenean, EITBko kontratu zuzena eduki ezkerok, **1.000**ko kontratua eskeintzen zaio erredaktore lana egiteagatik. EITBko edozein kazetariren erdia.
- Bestela, ez lan hitzarmenik, edota –ordutegiengatik edo txandengatik- inondik ere **egokitu ezin daitekeen bulegoetako lan hitzarmen** bat erakusten zaie langileei, baina ezta hori ere ez zaie bermatzen.
- Euren lanarekin zerikusirik ez duen **kontratu mota** egiten zaie: informatika operadore, www.eitb.com hornitzeko informazioa lantzen duen kazetari lana egiteko.
- MBN enpresari kontratua eten eta M4Fri berria egiteko garaian **hainbat langile kanpoan** gelditu zen. “Kasualitatez” egokitu omen zieten lan hitzarmen ezegoki haren hainbat eskubide aldarrikatzen aritu zirenak -hitzarmena egokitu ezinez gain, orain eska ezina ere-. Zera iradoki zitzaizen alde zurretik, lanean jendea gustura egotea nahi zutela, eta ez bazeuden, kanpoan zerbait egokiago bilatu zezaketela^a. EITBNETek jarritako aitzakia hurrengo kontratazioan langile guztientzako lekurik ez zutena edukiko izan bazen ere, kalean gelditu ziren lau langileren ordez beste sei kontratatu izan ziren. Kaleratzeko aitzakia hau izan zen, hurrengo enpresan ez zela laurentzako lanik egongo. Ba lau horien ordez beste sei langile kontratatu ziren. Beste lau langileri, “ohartarazpen gisa” soilik sei hilabeteko kontratua egiten zaie.
- EXPRESSIVEN ere antzekoa gertatu da. Eskubide xumeren bat eskatzen egondako **langile bat kalean** jarri izan da. Publizitate enpresaren aitzakia gezurtia “helburuetara iritsi ez izana” jarri du enpresak, ia helburuak bete dituen langile bakarra izan denean. Gerora jakin izan du langile horrek hauteskunde sindikalak sustatu nahi izateagatik izan dela kaleratua, eta aurretik jasan izandako lan jazarpenak kutsu politiko handia izan duela.
- Lotsagarria Pobrezia Baztertzeko Nazioarteko Egunean egindakoa, izan ere prekarietatean oinarrituta dagoen enpresa honek “expressive solidaria” marka atera baitzuen, “mundu zuzenagoa sortzen laguntzeko” asmoa duten egitasmoak abian jartzeko helburu propagandistiko hutsarekin.

Korapilo hau ulertzea ez da erreza, eta askatzea are zailagoa. Oraindik gehiago nahas daitekeenaren zantzuren bat ere jaso du LABek, hots, antzerako izaerako enpresa berriren bat sor daitekeena. Halere kontutan eduki behar da agian dagoeneko enpresaren batetan aldaketarik eman zitekeela. Ez legoke gaizki hari hauetatik tira egiten jarraitzeko kazetari lana egitea, eta horretara gonbidatzen -erronka egiten-zaituztegu kazetarioi.

Bitartean, hauxe da EITB's NEW STYLE “new-liberal” horren inguruan aurreratu dezakeguna. Youtube-n iaz azaldu zen [bideoan](#) -40.000 euroko “inbertsioa”- ondo adierazten da bertan agertzen diren zuzendaritza-izar-dantzarien irizpidea, gero eta toki gehiagoetan nozitzen den estiloa: **lan egin ezazu irribarrez, bestela kanpoan beste aukerarik bilatzera gonbidatzen zaitugu^a.**



“NEW STYLE” de EITB: Por una parte amiguismo y precariedad, por otra control y falta de control.

Esta es la conclusión a la que llega LAB tras analizar la información que ha recibido. La dirección de EITB podría estar utilizando los recursos públicos de una manera partidista y -en sintonía con la identidad de ese partido- neoliberal.

Ha creado varias empresas con un capital público en un 50%, para realizar trabajos para EITB. De este modo podría conseguir varios objetivos:

- **Proveer de dinero público iniciativas privadas.**
- **Escapar del control público**, tanto del Consejo de Administración de EITB, como a la comisión de control parlamentario a EITB, y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.
- Participando en los diferentes Consejos de Administración, conseguir **sobrepagos complementarios** a los sueldos públicos mediante dietas. Por supuesto, no se pueden cuantificar ya que están a salvo del control público, como hemos mencionado.
- **Asegurarse el control** de esas empresas de comunicación, aunque “sólo” la mitad del capital sea público. Se mantiene por lo menos el control de los Consejos de Administración, tanto por la proporción de miembros de EITB como del voto de calidad del presidente².
- **Eludir los derechos y obligaciones de las y los trabajadores** de empresas públicas.

Se crean “**auto-subcontratas**” instrumentales, puesto que estas empresas trabajan para EITB y en las mismas instalaciones (VILAU-MBN-M4F) o lo harán en breve (EXPRESSIVE).

- **Hilo VILAU-MBN-M4F:**
 - En 2003 se creó EITBNET, para proveer de servicios de Internet tanto a EITB como al Gobierno Vasco. Se creó casi sin estructura, colocando en las jefaturas a trabajadores de EITB en excedencia. El resto de plantilla (50-60 personas) se contrataron mediante la recién constituida empresa VILAU MEDIA.
 - Por “casualidad”, el director de esa empresa VILAU era Javier Calera, a la vez de director de EITBNET durante varios meses. En una respuesta dada al parlamento (5/7/2006), EITB reconoció que tenía contrato “a tiempo parcial” en ambas empresas. Una relación contractual muy EXTRAÑA para un director -cuándo negociaría consigo mismo por ejemplo-, y más raro aún, si se subcontrata a sí mismo. Podrían incluso existir responsabilidades PENALES.
 - Cuando el tema se trata en comisión parlamentaria, “casualmente” la contrata cambia. MBN se hizo cargo de la plantilla de VILAU.
 - La situación se ha podido “estabilizar” en 2008, cuando EITB ha creado otra empresa para subcontratarse, M4F. La mayor parte de la plantilla de MBN pasa a esta nueva empresa, pero no en su totalidad.
- **Hilo EXPRESSIVE:**
 - La persona que se encargaba de gestionar la publicidad antes de entrar la nueva dirección era Itziar Epalza, y se funcionaba con una estructura interna en el Ente Público EITB.
 - Se formaliza un contrato con la empresa madrileña GDM (Gerencia De Medios) gestionada por el grupo PRISA, y se externaliza la gestión de la publicidad, pero con la misma persona responsable en excedencia.
 - También por “casualidad”, se crea una nueva empresa en 2008, que casualmente sólo tiene el 50% de capital público, y el control de su consejo de administración también quedaría en manos de EITB: EXPRESSIVE MEDIA.

² Las composiciones de los consejos de administración suelen ser impares, para evitar empates. En estos casos el voto de calidad del presidente del consejo decanta la decisión.

SITUACIÓN DE LAS Y LOS TRABAJADORES

Este embrollo no sólo afecta a los directivos. Los y las trabajadoras también quedan “manchadas” con todas estas operaciones. Pero esta es una mancha realmente negra, consecuencia de una sucia situación que tienen que sufrir. Cabe resaltar que EITBNET, siendo una empresa nueva -también del estilo nuevo de EITB-, casi no tiene estructura (unas 20 personas), sin comité de empresa, sin convenio, y con la mayoría de sus trabajadoras y trabajadores (más o menos un 80%), en contratas. He aquí unos datos de la situación de precariedad y control que padecen:

- En el mejor de los casos, con contrato directo de EITB, se ofrecen **1.000€** brutos por realizar trabajos de redactor. La mitad que cualquier redactor/a de EITB.
- Por otro lado, sin convenio o en todo caso se les muestra un **convenio inaplicable** -por horarios o turnicidades- de oficinas y despachos, que ni se les garantiza.
- Se les formaliza un **tipo de contrato** que no tiene nada que ver con las funciones que realizan: operador informático, para hacer funciones de periodista para surtir de información a www.eitb.com.
- Cuando se rescinde el contrato a MBN y se formaliza con M4F **hay gente que se va a la calle**. “Casualmente” habían solicitado la aplicación de algunos derechos que aparecían en ese convenio inaplicable -ahora además inexigible-. Previamente se sugirió en la empresa que ‘querían a la gente trabajando a gusto, y si no lo estaban, podrían buscar otras opciones fuera’. Si bien la excusa que puso EITBNET fue que en la próxima contrata no iba a haber sitio para toda la plantilla, la realidad fue que en lugar de tres personas que quedaron en la calle se contrató a seis. A otras cuatro personas se les hacen contratos de sólo seis meses como “advertencia”.
- En EXPRESSIVE ha ocurrido algo parecido. Una persona que solicitaba el reconocimiento de un simple derecho ha sido **puesta en la calle**. La excusa mentirosa de esa empresa de publicidad ha sido que “no ha llegado a los objetivos”, cuando ha sido casi la única persona que los ha conseguido. Más tarde ha podido saber que su expulsión se ha debido a su intención de promover elecciones sindicales, y que la situación de acoso laboral que había padecido anteriormente tenía grandes connotaciones políticas.
- Vergonzoso que, coincidiendo con el Día Internacional para la Erradicación de la Pobreza, EXPRESSIVE diera a conocer la marca “expressive solidaria”, para lanzar proyectos que contribuyan a “crear un mundo más justo”, con un objetivo meramente propagandístico.

No es fácil entender el entramado, y más difícil aún desenmarañarlo. LAB ha recibido ya alguna muestra de que se puede complicar aún más, como la posibilidad de que se cree otra empresa de similares características. No obstante, hay que tener en cuenta que en alguna de las empresas se ha podido dar ya algún movimiento, y no haya aparecido aún en el Registro Mercantil. No estaría de más tirar de estos hilos mediante una labor periodística, a lo que os invitamos/retamos a las y los redactores.

Mientras tanto, esto es lo que os podemos adelantar sobre el NEW STYLE “new-liberal” de EITB. Se aprecian bien los criterios de la dirección-estelar-bailarina que apareció en el [video](#) de 40.000 euros de “inversión” que el año pasado apareció en Youtube, un estilo que se percibe cada vez en más empresas: **‘trabaja sonriendo, o si no te invitamos a buscar fuera otras opciones’**



